

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Gorka Arrese

DATA: 2019ko irailaren 11tik urriaren 5era

AZALPENA:

HITZari buruzko **sarrera teoriko bat** egin nuen, Hitzaren Eskolako lehendabiziko irakaslea nintzenez. Eta liburuxka bat idatzi nuen propio, ikasleei (eta gainerako irakasleei) eskaintzeko; 174.000 karakter inguruko liburuxka, atal laburrez osatua.

Kontu asko eta askoren gainetik eta azpitik igaro ginen eskolako egunetan.

Baina funtsean zer adierazi nahi nuen? Zortzi detaile txiki hauek:

—Erreminten gisakoak dira hitzak. Tresnaren aurrean ez dugu galdetzen: zer da?, baizik eta: nola erabiltzen da?

—Argitu eta osatu behar direnak ez dira hitzak, esaldiak baizik.

—Formak (esaldiak) organikoa bihurtzen du ideia. Eta formak funtzioa du. Eta funtzioak eragiketa. Eta eragiketak ondorioa.

—Mintzoak definitzen du gizakia. Eta hizkuntzak kultura. Eta kulturak herria.

—Pentsagarria dena edo pentsatzen duguna hizkuntzaren bidez egiten dugu.

—Gorputz osoarekin mintzatzen gara.

—Organismo biziduna da hizkuntza. Mintzo direnen eskubideak ditu.

—Hizkuntza / komunikazioa menderatzen dituenak tresna ahaltzuak ditu (boterea).

AURKIBIDEA

- **Saioa 1**
Mintzoa gara
- **Saioa 2**
Gorputzaren bidez mintzatzen gara
- **Saioa 3**
Elkarrizketa da pertsonen arteko distantzia onena
- **Saioa 4**
Lurralde bat du gure hizkuntzak
- **Saioa 5**
Alfabetoa da gizakiaren asmakizun handiena
- **Saioa 6**
Metaforak eta objektuak: botere tresnak
- **Saioa 7**
Historia idatzi egiten da, esaldiz finkatzen da
- **Saioa 8**
Inteligentziak sortzen dizkigun lilurak

1 SAIOA

MINTZOA GARA

- HIZKUNTZA GARAPENA: emozio, imitazio, komunikazio oihuetatik mintzora.
- MINTZAIDEAK: nor bere burua aditzen du, batzuek besteei aditzen diete.
- ORGANISMO BIZIAK: bizitza gordailu oso handiak biltzen dituzte hizkuntzek.
- ESKUBIDEAK: hizkuntzek ba ote dute eskubiderik?; bai: hiztunen eskubideak.
- MEMORIA: informazioa biltzeko eta gordetzeko tresna ere bada hizkuntza.
- IZENDATZEAZ: denari ipintzen diogu izena. Gosea eta desira bezain amaiezinak dira izendatzen segitzeko gure grina eta premia.

2 SAIOA

GORPUTZAREN BIDEZ MINTZATZEN GARA

- ISILUNEA: hitzaren eta ekintzaren artean beti izaten da isilunea. Isilunerik gabe ez dago hitzik. Hitza eta isiltasuna, biak dira bat, ezin da bat izan bestea gabe. Isilaldia da komunikazioaren modulatzailea.
- ZARATA: perturbatu (eten, asaldatu, nahasi) egiten duen fenomeno saihestezina.
- ERREDUNDANTZIA: informazioaren errepika. Ahozko lengoaiak %50 baino gehiago dira erredundanteak. Elkarrizketa informaletan %85 arte irits daiteke.
- ORAIN: akzioa denbora da eta presentean gertatzen da; presenteak forma dauka eta geroa proiektatzen du.
- GORPUTZA: gorputzaren bidez mintzatzen gara; gogoarekin mintzo gara: memoriarekin, adimenarekin, pentsamenduarekin. Gogoa eta gorputza, biak dira bat.
- Gorputza beti mintzo da: AURPEGIA, BEGIAK, ILEAK, JANTZIAK...
- %65 EZ BERBAZKOA: komunikazio akzioetan %35 da berbazkoa edo tonala. Ahoak isiltzen duena gorputzak esaten du.
- MULTIMODALAK dira adierazpen emozionalak:
- ENTZUN: garunak jasotzen dituen estimuluetatik %70 soinuak dira.
- AUTOMATISMOAZ: automatikoa da gure gorputza. 70 urte bizi izan den pertsona batek 2.000 milioi bihotz taupada izan ditu, eta 645 milioi bider hartu du arnasa.
- ZENTZUMENEZ: 13 zentzumen ditugu gutxienez.

3 SAIOA

ELKARRIZKETA DA PERTSONEN ARTEKO DISTANTZIA ONENA

—OROIMENAZ: memoriarik gabe ez da posible hizkuntza, ezta pentsamendua ere. Iraganaren etorkizuna dira memoria eta hizkuntza.

—IMITAZIOAZ eta KONPENTSAZIOAZ.

—RÉCIPROCITÉ: ez zara zeuk uste duzuna, besteek zutaz uste dutena ere bazara.

—SIMULTAINEITÉ: aldi berean egiten dugu: zerbait adierazi, asmoa erakutsi, efektua sortu, aldartea agertu, identitatea eta rolak markatu.

—HAZKUNDEAZ: haur izatetik gazte izatera, nola gertatzen ote dira gorputz bilakaerak eta transferentzia linguistikoak?

—KONTESTUA: faktore biologikoak, psikologikoak, soziologikoak, fisikoak, ekologikoak baldintzatu eta moldatu egiten dute inguru komunikatiboa.

—DISTANTZIA: Elkarrizketaren distantzia da pertsonen arteko distantzia onena.

4 SAIOA

LURRALDE BAT DU GURE HIZKUNTZAK

—HITZA DAUKANAK EZPATA DAUKA: Hitzaren jabe denak edukitzen eta erabiltzen ditu hitzak, eduki eta erabili beharrik gabe gauzak. Hizkuntzak eta zeinuak menderatzen dituenak menderatzen ditu pertsonak, taldeak, komunitateak.

—MEMORIA dauka eta KULTURA BAT dauka hizkuntza daukanak: herri baten pentsamenduaren ondasun multzoa da hizkuntza.

—LURRALDEEN NOLAKOTASUNA mundu osoan aldatu egingo da biztanle kopuruak eta hiztun kopuruak aldatzeaz batera. (Euskarak bi lurralde nagusi ditu: Euskal Herria eta internet).

—ARRISKUAN daude munduko hizkuntzen % 90.

—ELEBITASUNA: bi hizkuntza jakiteko eta erabiltzeko norbanakoak duen moldakortasuna.

—DIGLOSIA: jendarte ezaugarri bat da; bi hizkuntza diren lurraldeetan gertatzen da; hizkuntzetako batek bestea desplazatu egiten du.

—MAPA ETA LURRALDEA, eta satelizazioa (errealia eta hiperrealia).

5 SAIOA

ALFABETOA DA GIZAKIAREN ASMAKIZUN HANDIENA

—ZEINUAK: 1/ ikonoak; 2/ indizeak (edo zantzuak); 3/ sinboloak.

—DENA ETA EZ DENA: zeinu bat ez da haxe eta berau bakarrik, *ez den* hura ere bada. Goi da: ez behe, ez ezker, ez eskuin.

—ALFABETOA da gizakiaren asmakizun handiena (Galileo Galilei). Grabazio sistema bat da alfabetoa, NOTAZIO MUSIKALA eta NOTAZIO MATEMATIKOA bezala. Sinplifikatu eta erraztu, konbinatoriaz erruz biderkatzen segitzeko.

—IDAZKETAZ; eta LIBURUAZ eta inprimategiaz: suaren konkistaren ostekoa izan zen historiaren garai bat; elektrizitatearen aurkikuntzak historiaren beste garai bat abiatu zuen. (Berdin idazketa / inprimategia).

—AHOTSAREN KOLOREA: grabazioaz.

—IMITATU, DISIMULATU, SIMULATU: zeinuak azaltzeaz eta ezkutatzeaz.

—JOLASA eta JOKOA: hizkuntzazkoak dira: erritual bat, arauekin eta paradigmeekin, sintaxiarekin; protokoloak eta mugimenduak, sentipenekin eta arriskuekin; estimulua eta sedukzioa, zalantzekin eta esperientziekin.

—SORMENA, UMOREA, IMAJINAZIOA. “Bost hitz ditu esaldi honek, edo zazpi?”.

6 SAIOA

METAFORAK ETA OBJEKTUAK: BOTERE TRESNAK

—AUTORITATEA: prestigioa, garrantzia, ohorea, estiloa, ulergarritasuna, sinesgarritasuna... Eta BOTEREA: ordena, kontrola eta influentzia.

—TRESNAK DIRA ESALDIAK: Iraupen eta erritmo eragiketak dira kontakizuna, melodia, diskurtsoa.

—DISKURTSOA: agurra, elkarrizketa, eztabaida, galdera, iradokizuna, sedukzioa, promesa, negoziaketa, agindua, mehatxua, errieta, kalapita, barkamena, aitorpena, sekretua, zeremonia, informazioa, irakaspena, erretolika, esamesa, fikzioa, txantxa...

—ADITZA da diskurtso ororen kondizio ezinbestekoa. Aditzik ezean, ezin esan liteke hizkuntza dagoenik. Baieztatu egiten du aditzak, adierazi eta juzgatu.

—METAFORAZ: metaforekin mintzatzen gara etengabe, zeinu eta kontzeptu baliokideez.

—ASIMETRIAZ (desorekaz): oposizio kontzeptualak egiteko ohitura daukagu: hotza/beroa, gordina/egosia, forma/edukia, objektua/ideia, aktiboa/pasiboa, goi/behe, originala/kopia, natura/kultura, argia/iluna, zero/bat.

—OBJEKTUAZ: signifikanteak dira objektuak. Sistemak dira: morfologia daukate, autoritatea ematen zaie, historia daukate, karga genealogiko bat, ideologikoa ere bai agian. Tresnak dira.

—MATEMATIKA: hizkuntza isil hori.

—ZENBAKIAK: posiziozko zenbakikuntza.

—EKUAZIOAZ: tresnak dira esaldiak, tresnak dira ekuazioak.

7 SAIOA

HISTORIA IDATZI EGITEN DA, ESALDIZ FINKATZEN DA

—HORIZONTALAK dira perpausa, ekuazioa, frase melodikoa (ezkerretik eskuinera gure kulturan); a/ iraupenez okupatzen dute espazioa; b/ posizionalak dira, osagaiak toki hau edo bestea hartzen dute denboran; c/ denborazko eragiketak dira.

—BERTIKALA da estiloa; dena zeharkatzen duen zera hori da estiloa.

—KATEGORIEZ: obra onak ez du azalpenik, obra txarrak ez du aitzakiarik, erdipurdikoak ez du interesik.

—KULTURARI BURUZ: kultua ez denik ez dago munduan. Gure kode genetikoa da gauza bat (hor gordetzen dugu gure gorputzaren informazioa), eta beste bat da hizkuntzak biltzen eta gordetzen duen korpua: ezagutza sorta handi bat, hitz egituratuaren sorta bat, memorizatua (geneetan idatzi gabea).

—HISTORIAZ edo KONTAKIZUNAZ: botere edo legitimitate edo prestigio moduren bat daukanak egiten du historiaren kontakizuna. Historia idatzi egiten da, esaldiz finkatzen da.

—JOKO ZELAIK: erreferentzia markoa ezartzen duenaren aldekoa izaten da eztabaida eta negoziaketa.

—KONTZIENTZIA eragiketa moduko bat da: erantzuna izan duen zerbait pasatzea galdera izaerara, eta ondorioz galdera honi beste erantzun bat (berria) ematea. Disoziaezinak dira akzioa eta erreakzioa.

—ALGORITMOAZ: abestien egiturak eta formak aldatzen ari dira; dagoeneko, algoritmoak zeuk baino hobeto daki zein musika gustatzen zaizun.

8 SAIOA

INTELIGENTZIAK SORTZEN DIZKIGUN LILURAK

—AERODINAMIKAZ: premiazkoa da arina izatea, txoria bezalakoa, baina ez luma bezalakoa (Paul Valery).

—Zer izan zen LEHENAGO, soinua ala zentzua?

—HASIERAZ: Pitagoras matematikariak esan zuen: hasieran akordea zen (harmoniak antolatzen du unibertsoaren egitura). Joan ebanjelio idazleak esan zuen: hasieran hitza zen (logos, esaldia, pentsamendua, diskurtsoa).

—PARADOXAK... eta IRUZURRAK: zentzumenek iruzurrak egiten dizkigute.

—GORRIA AL DA BERDEA ? (eta alderantziz).

—EGIA ETA GEZURRA: Kretarrek gezurra esaten dute beti (Epimenides). Egiak historikoki eraikiak izan dira; hitz egitea gezurra esatea da (Michel Foucault).

—FILOSOFIA: gure inteligentziak sortzen dizkigun liluren aurkako borroka hizkuntzaren bitartez.

—Mintzoaren MAGIAZ. Diskurtsoa da magia: kontakizuna. Akzioa da magia: eragiketa. Sekretua du magiak: suspensea, emozioa. Imitatu, simulatu eta disimulatu egiten du magiak. Agerikoa eta ezkutukoa ipintzen ditu jolasean. Errepikagarria delako da originala.

LIBURUAK, OBJETUAK, IRUDIAK, DOINUAK...

—Era ez batere ordenatu batean, liburu batzuk:

Cuadernos 1894-1945, PAUL VALERY, Galaxia Gutenberg 2007

Lenguaje y silencio, GEORGE STEINER (1976), Gedisa 2013

La semiótica, SEBASTIA SERRANO (1981), Montesinos 1984

Investigaciones filosóficas, LUDWIG WITTGENSTEIN (1958), Altaya 1999

Las palabras y las cosas, MICHEL FOUCAULT (1966), Siglo XXI 1968

El susurro del lenguaje, ROLAND BARTHES (1984), Paidós 1994

Mitologías, ROLAND BARTHES (1957), Siglo XXI 1999

Metáforas de la vida cotidiana, G. LAKOFF & M. JOHNSON (1980) Cátedra 2004

No pienses en un elefante, GEORGE LAKOFF (2004), Complutense 2007

Seis propuestas para el próximo milenio, ITALO CALVINO (1988), Siruela 1989

La cultura, DIETRICH SCHWANITZ (1999), Santillana 2005

Signo, UMBERTO ECO (1973), Labor 1988

Cultura y simulacro, JEAN BAUDRILLARD (1977), Kairós 1978

El sistema de los objetos, JEAN BAUDRILLARD (1968), Siglo XXI 1969

El silencio, DAVID LE BRETON (1997), Sequitur 2001

Prosas apátridas, JULIO R. RIBEYRO (1975), Seix Barral 1994

Mil palabras, GABRIEL ZAID, Debate 2018

—Jazz konposizio bi, YouTube (bideo klip):

Take Five, THE DAVE BRUBECK QUARTET (1959), tb grabazioa / 1964 Brusela

It Don't Mean a Thing, DUKE ELLINGTON (1931), Ella Fitzgerald dek kantatua / 1965

—Erabilitako zenbait irudi eta objektu:

Estraza paperezko poltsa bat, bi aldeetan eskuz idatzita: Ez BEGIRATU BARRUAN.

Zaldia: Getariako Saiaz Hoteleko xake jokoko zaldi zuri egurrezko bat.

Arrautza kaxa, dozena erdikoa; txanpona, euro bat; plastikozko pote txuri bat.

GORRIA AL DA BERDEA ? (eta alderantziz).

Pintura: *La trahision des images*, RENE MAGRITTE (1929).

Bideoa: MARIA ABRAMOWICZ eta Ulay / 2010 NY - MoMA